



EUSKARALDIA

HH/LH PROPOSAMEN DIDAKTIKOA



HH/LH PROPOSAMEN DIDAKTIKOA



HITZAURREA

Euskaraldiak euskararen erabilera sozialaren aroa zabaldu nahi du. Ariketa horrek arreta eta indargunea helduengan jarriko badu ere hamaika egunez, 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra, pentsatu dugu haur eta gaztetxoekin girotze- eta hurbilpen-arietak egin daitezkeela: horregatik sortu dugu material didaktiko xume hau.

Alde batetik, komenigarria da haur eta gaztetxoek ulertzea helduak zertan ariko diren Euskaraldian eta, bestalde, belaunaldi gazteek helduak (gurasoak tarteko) motibatzeke aukera daukate. Euskararen erabilera-aren motibazioa denon artean sustatzea garrantzitsua izango da, eta etorkizuneko euskal hiztunak gaurtik prestatzea funtsezkoa ere bada.

HELBURUAK

Material didaktiko honen helburu nagusiak hiru ataletan banatuta daude:

1. Irria Aldizkaria (HH-LH 1. zikloa): Girotzea. Euskaraldirako sortutako aldizkari monografikotik lau elementu hartu dira, HH eta LH Ieko gazteenekin Euskaraldiaren hurbilpentxoak lantzeko eta haurren familiekin lotura egiteko. Euskaraldia den garaian gauzatuko da zati hau.

2. Euskaraldia (LH 2-3. zikloak): Euskaraldia girotzeko eta rolak ezagutzeko lau ariketa izango dituzte. Atal hau, bereziki, azaroaren 23aren aurretik lantzeko izango da; euskal gizartearen bera ere, tokian toki, azken prestaketa lanetan ibiliko denean.

3. Erabilera (LH 2-3. zikloak): erabileraren inguruko hausnarketak hizkuntza-ohituren gaineko gogoeta ekarri nahi du, baita abenduaren 3ko eguna molde berezian ospatzeko aitzakia ere. Euskaraldiaren garaian lantzeko izango da.



ANTOLAKETA

Hemen proposatzen ditugun jarduerak gauzatzeko gomendagarria da ikastetxean alderdi curricularra eta ez-curricularra erabiltzea: proposatzen duguna gauzatzea irakasle guztien ardua izango da. Hainbat arlotako irakasleek erabaki beharko dute ariketa bakoitza zein saiotan garatuko duten, beti ere finkatutako epeak aintzat hartuta.

Material hau, adinean aurrera joan ahala aberatsago agertzen da:

- Euskaraldiak dakartzan ariketa eta kontzeptuak ez direnez txikientzat erraz ulertzeko modukoak, Irria Aldizkariako elementuekin landu nahi ditugu. Aldizkariak bere osotasunean lorpide gehiago eskaintzen du, hortik Euskaraldia sakonago jorratu nahiko balitz.
- Ikasle zaharreneen erreferentzialtasuna kontuan hartu nahi dugu, horiek direlako gazteenen erreferente eta eredu zuzenak, Euskaraldiaren filosofiari jarraituz (erronkak indargunea helduengan jarri duelako horretarako). LHko zaharrenekin sakonago lan egin nahiko balitz, gomendatua da DBH-rako pentsatutako materialetik elementuak hartzea.

Dena dela, erronka nagusia izango dute Euskaraldiak iraun bitartean, ikastetxean behintzat, Ahobizi izatea, ikasleen aniztasuna kontuan hartuz beti ere¹. Helduek 11 egun igaroko dituzte euskararen erabilera areagotzen ingurumen hurbilean: guk, zergatik ez? Baietz lortu!

¹ Ekimena ikastetxera mugatzen denez, eta ikastetxea euskararen arnagunea denez, fokua Ahobizietan kokatuko da, Belarriprestak baditugula aurreikusiz.

I. IRRIA ALDIZKARIA
(HH-LH I. ZIKLOA): GIROTZEA.
EUSKARALDIRAKO SORTUTAKO
ALDIZKARI MONOGRAFIKOTIK

Azaroaren 15etik 22ra lantzeko

GAIA/ IZENA	IA, IA, IA, BADATOR EUSKARALDIA!	Publikoa	HH LH I. zikloa
Denbora	60 min.	Zenbakia	I
Helburua (zertarako egiten dugun)	<ul style="list-style-type: none"> Ikasleei Euskaraldiaren lehen hurbilpena eskaini. Ikastetxea Euskaraldiaren eremu gisa markatu eta apaindu. 		
Prozedura (urratsez urrats eman beharreko pausoak)	<ul style="list-style-type: none"> Aurrezagutzak: Euskaraldiarekin lotura egingo dugu, galdetuz zer dakiten ekimena-ri buruz. Erantzunak bildu (arbelean, paperean...) eta borobilduko ditugu, Euskaraldia labur aurkeztuz bezala. Elkarrizketa planifikatzerakoan, honako oinarritzko elementu hauek izango ditugu kontuan: <ul style="list-style-type: none"> Haur guztien parte-hartzea Galdera irekiak egitea Pentsarazten duten galderak erabiltzea Ikasleak Lagun komikitxoaren inguruan jarriko ditugu lanean. Irudiak begiratzuz, esan beharko dute zer ikusten duten: txakur bat, aho bat, belarri bat... Ondoren, eskatuko diegu zer iradokitzen dieten ahoak eta belarriak. Elkarrizketa labur bat gara dezakegu (zer diren, zer egiten duten, zenbat ditugun...). HHn haur bakoitzarentzat irudien kopia bana (zuri-beltzean) prest eduki daiteke eta marrazki horiekin gela, pasabideak/espazioak apaindu edota etxera eramateko erabili; LH I. zikloak, aldiz, ikastetxeko zein ikasgelako atarian, pasabideetan... zintzilikatzeko leloak asmatuko dituzte eta euskaraz aritzeko oinarritzko esamoldeen hiztegi bat landuko dute. LH I. zikloekin bigarren buelta bat eman daiteke Lagun komikitxoarekin, irakurketa landuz. Bukatzeko, ikastetxea Euskaraldiaren eremu gisa markatuko dugu, guraso guztiei ongi etorria Ahobizien modura eginez: euskaraz! Egunaren amaieran, euskaraz agurtuko ditugun gurasoei eskatuko diegu Euskaraldia etxean hurrekin aipatzeko, batez ere webgunea haiekin bisitatuz. 		
Materiala:	<p>Irria Aldizkaria, 4-5. orrialdeak (1. eranskina)</p> <p>Ikastetxea apaintzeko materiala (kartulinak, collage, errotulkiak...)</p> <p>Euskaraldiaren webgunea, gurasoekin partekatzeko: www.euskaraldia.eus (Bertatik sar daiteke sare sozialetako orrietan)</p>		
Erantzunak? Pistak?	<ul style="list-style-type: none"> Hiztegiak sinplea izan behar du, errutina linguistikoari lotuta, guraso guztiek euskaraz erraz erabiltzeko gisan (agurtzeko, ohiko esaldiak trukatzeko, ikastetxea euskaraz girotzeko) Aukera erabil daiteke abenduaren 3ri buruz hitz egiteko, baldin eta zerbait berezia egingo bada LH eta DBH-koekin. 		



GAIA/ IZENA	TXOKO TXIKI KUTTUNA	Publikoa	LH 1. zikloa
Denbora	30 min.	Zenbakia	2
Helburua (zertarako egiten dugun)	<ul style="list-style-type: none"> Euskaraldia olerkiaren bidez sakontzea. Ikasleek gurasoekin lotura egitea Ahobizi/Belarriprest kontzeptuen inguruan. 		
Prozedura (urratsez urrats eman beharreko pausoak)	<ul style="list-style-type: none"> Giro berezia sortuko dugu olerkien inguruan jarduteko: giro lasaia eta intimoa, haurrak borobilean eta lurrian jarrita. Kandela bat ere piztu daiteke. Irakasleak Txoko Txiki Kuttuneko olerkitxoak ozenki irakurriko ditu. Ondoren, ikasleei eskatuko zaie zer ulertu duten adierazteko, eta olerki bakoitzak Euskaraldiarekin duen lotura esplizitatzen saiatuko gara elkarrekin. Aldizkariko orrialdeak zuri-beltzean azalduz, ikasle bakoitzak aukeratu behar du zein duen gustukoena: hori margotu eta etxera eraman dezake gurasoei oparitzeko. Ikasleek Ahobizi ala Belarriprest diren, eta zergatik, galdetu behar du diete gurasoei, baldin eta haiek euskaraz ulertzen badute. Guraso erdaldunak badituzte, euskararekiko harremana nolakoa duten sinple azaltzeko eskatuko diete. Hurrengo saioan saiatuko gara labur aipatzen ikasleek zer erantzun bildu duten gurasoen partetik. Beharrezkoa izanez gero, mezutxo bat helaraz dakieke gurasoei etxera. 		
Materiala:	Irria Aldizkaria, 26-27. orrialdeak (2. eranskina) + zuri-beltzean (3. eranskina) Margoak		
Erantzunak? Pistak?	<ul style="list-style-type: none"> <u>Gazta eta ezta</u>: Ahobizi eta Belarriprestekin dauka lotura, bakoitzaren ekarpena azpimarratuz. <u>Hamaika egun</u>: Euskaraldian irauten duen denbora-tartea, hori luzatu daitekeela iradokiz. <u>Lehen hitza</u>: lehen hitza euskaraz eskaintzeak izan dezakeen ondorio baikorra azpimarratzen du. <u>Haurra naiz eta hemen nago</u>: haurraren izaera eta harrotasuna kilikatzen ditu, euskara kalean hedatu dezakeela esanez bukaeran. 		

GAIA/ IZENA	AHOA BIZI, BELARRIAK PREST	Publikoa	HH LH I. zikloa
Denbora	30 min.	Zenbakia	3
Helburua (zertarako egiten dugun)	<ul style="list-style-type: none"> kasleekin Ahobizi/Belarriprest kontzeptuen hurbilpen ludikoa gauzatzea. Euskaraldiari lotutako kantu bat familian partekatzea. 		
Prozedura (urratsez urrats eman beharreko pausoak)	<ul style="list-style-type: none"> Ikasleei "Ahoa bizi, belarriak prest" kantua entzutera emango zaie. Lehen entzunaldiaren ostean, galdetuko zaie kantua zertaz ari den, ikusteko Euskaraldiarekin loturarik egiten duten. Elkarrizketa Ahobizi/Belarriprest kontzeptuetara bideratzen saiatuko gara. Bigarren entzunaldian, koreografia erakutsiko dugu bideoaren bidez, eta LH I. zikloko zaharrenak jarriko ditugu koreografia lantzen, HHkoei azaltzeko hurrengo egun batean, baita abenduaren 3an eskaintzeko ere. Ikastetxe osora zabal daiteke proposamen hau. Bideoaren esteka etxeetara helaraziko dugu, haurrek familia giroan gozatzeko, baita, zergatik ez, dantzan treba daitezkeen elkarrekin! 		
Materiala:	<p>"Ahoa bizi, belarriak prest" kantuen bideoa eta koreografia: https://www.youtube.com/watch?v=gTmtV9C9HdA</p> <p>Irria Aldizkarian daude letrak: 14-15. orrialdeak (4. eranskina)</p>		
Erantzunak? Pistak?	<ul style="list-style-type: none"> HHkoak aldizkariaren orrialdeak begiratzen jar ditzakegu, zer ikusten duten azal dezaten. LH I. zikloko zaharrenak jar daitezke letren inguruan lanean: letrak hutsuneekin utziz, eta entzun ahala bete ditzatela. 		

GAIA/ IZENA	IPUINA	Publikoa	LH 1. zikloa
Denbora	30 min.	Zenbakia	4
Helburua (zertarako egiten dugun)	<ul style="list-style-type: none"> Euskaraldiari lotutako ipuin baten bidez, irakurketa eta ulermena lantzea. Euskaraldiaren ariketa sakonago ulertzea eta hausnarketatxoa eskaintzea. 		
Prozedura (urratsez urrats eman beharreko pausoak)	<ul style="list-style-type: none"> Irakurtzen hasi aurretik, Euskaraldiarekin lotura egingo dugu, ipuina tes-tuinguruan jartzeko. Irakurketa amaitzean, galdera batzuk luzatuko ditugu, ulermena lantze-ko: Zein izan da pailazoen ekimena? Zer egin dute? Nor gogoratzen da Ahobizi eta Belarriprest zer den? Bukaeran, ikasleei hausnarketatxoa eskainiko diegu, lehen hitza euska-raz egiteari buruz: ezezagunekin, nola hasten dira inguruko helduak hitz egiten? Euskaraz ala erdaraz? Eta guk, nola egingo genuke? Zergatik? Txapak zertan lagungarri izan daitezke? 		
Materiala:	Irria Aldizkaria, 16-19. orrialdeak (5. eranskina)		
Erantzunak? Pistak?	<ul style="list-style-type: none"> HHko ikasleekin landu daiteke ipuina ahozkotasuna landuz, Artigal metodoa erabiliz, ondoren, antzeztuz, familian konta dezaten. LH 1. zikloko ikasleak (LH 2.ziklokoekin ere egin daiteke) ipuinaren gaineko lanketa berezia egin dezakete. Kontakizun zein antzeztu hauek abenduaren 3ko ekimenaren parte ere izan daitezke. 		





2. EUSKARALDIA (LH 2-3. ZIKLOAK):

EUSKARALDIAN GIROTZEKO ETA
ARIKETA SOZIALAREN KONTZEPTUAK
EZAGUTZEKO

Azaroaren 23tik abenduaren 3ra lantzeko

GAIA/ IZENA	EUSKARALDIAREN AURKEZPENA	Publikoa	LH 2-3. zikloak
Denbora	15 min.	Zenbakia	1
Helburua (zertarako egiten dugun)	<ul style="list-style-type: none"> Ikasleei Euskaraldiaren lehen hurbilpena eskaini. 		
Prozedura (urratsez urrats eman beharreko pausoak)	<ul style="list-style-type: none"> Ikasleei galdetu zer dakiten Euskaraldiari buruz. Erantzunak bildu eta borobildu. Euskaraldiari lotutako webgunea eta sare sozialak ezagutarazi. Mapan, bakoitzak bere herria aurkitu. Ikasleak webgunea arakatzera gonbidatu ikasgelan, baita lagunartean zein familian partekatzera sustatu ere. 		
Materiala:	Euskaraldiaren webgunea: www.euskaraldia.eus (Bertatik sar daiteke sare sozialetako orrietan)		

GAIA/ IZENA	EUSKARALDIAREN ABESTIA ETA BIDEOA	Publikoa	LH 2-3. zikloak
Denbora	60 min.	Zenbakia	2
Helburua (zertarako egiten dugun)	<ul style="list-style-type: none"> “Hartu kontrola, aukeratu rola” abestia ezagutzea, ulertzea eta erabiltzea. Euskaraldia ekimena sakonago ezagutzea. 		
Prozedura (urratsez urrats eman beharreko pausoak)	<ul style="list-style-type: none"> Soinua zein bideoklipa erabili kantua partekatzeko. Letrak hutsuneekin jar daitezke ulermena lantzeko. Koreografia landu daiteke, bereziki abenduaren 3a girotzeko. 		
Materiala:	<ul style="list-style-type: none"> Bideoklipa: https://vimeo.com/294102383 Letrak (6. Eranskina) Koreografia: <ul style="list-style-type: none"> Osorik: https://www.youtube.com/watch?v=vTlwMIT7GfU Tutoriala: https://www.youtube.com/watch?v=6NIIITndv4Vg&t=4s Euskaraldia+Ahobizi/Belarriprest aurkezpena: https://www.youtube.com/watch?v=wwRbMF9utGk&t=8s		

GAIA/ IZENA	AHOBIZI/BELARRIPREST KONTZEPTUAK AZPIMARRATU	Publikoa	LH 2-3. zikloak
Denbora	10 min.	Zenbakia	3
Helburua (zertarako egiten dugun)	<ul style="list-style-type: none"> Ahobizi/Belarriprest kontzeptuak sakontzea. 		
Prozedura (urratsez urrats eman beharreko pausoak)	<ul style="list-style-type: none"> Dokumentuen irakurketa partekatua egin eta segurtatu kontzeptuak ulertu dituztela. Gogoeta partekatua bultzatu perfil bakoitzaren inguruan, azpimarratuz bakoitzaren ekarpena euskararen erabiltzea areagotzeko. 		
Materiala:	Ahobizi/Belarriprest infografiak (7. Eranskina)		

GAIA/ IZENA	HAMAIAKAKOAK	Publikoa	LH 2-3. zikloak
Denbora	60 min.	Zenbakia	4
Helburua (zertarako egiten dugun)	<ul style="list-style-type: none"> Euskaraldian parte-hartzeko Hamaikakoen arrazoiak ezagutzea. Ikastetxeko Hamaikakoa osatzea. <p>Oharra: Haur Hezkuntzan moldatu beharko da jarduera. Beharbada, hainbat euskalki entzutea izan daiteke helburu bakarra.</p>		
Prozedura (urratsez urrats eman beharreko pausoak)	<ul style="list-style-type: none"> Euskal Herri mailan zein lokalki osatutako Hamaikakoak ezagutu bidez. Hamaikakoak osatzen dituzten pertsonak identifikatu, beharrezkoa izanez gero bilaketak egin ez Interneten. Pertsonen hautuak ezagutu eta ulertu. Ikastetxeko Hamaikakoa egin, adin- eta genero-aniztasuna zainduz: ikasle-irakasle-hezitzaile-guraso. Ikastetxeak erabaki beharko du zenbat ikasle agertuko diren Hamaikakoan. Ikasleen hautaketa euren arteko eztabaida bidez bideratu. Hamaikakoaren argazkia hartu eta ikastolako webgunean ezarri Euskaraldia hasterakoan. 		
Materiala:	<p>Euskal Herriko Hamaikakoa https://www.youtube.com/watch?v=Z-rgkCneOIk</p> <p>Donostiako Hamaikakoa https://www.youtube.com/watch?v=Y_kkhP7em0l</p> <p>Bilboko Hamaikakoa https://www.youtube.com/watch?v=j3kYI3hPRKs</p> <p>Gasteizko Hamaikakoa https://www.youtube.com/watch?v=hfpasMgObec</p> <p>Nafarroako Hamaikakoa https://www.youtube.com/watch?v=I8mX3_VOIRo</p> <p>Ipar Euskal Herriko Hamaikakoa https://kanaldude.eus/bilaketa?q=euskaraldia</p> <p>Herri eta eskualde gehiagoko Hamaikakoen bideoak eskuragarri Interneten.</p>		



3. ERABILERA (LH 2-3. ZIKLOAK): HIZKUNTZA-OHITUREN GAINEKO GOGOETA.

Abenduaren 3a ostean lantzeko aukerak

GAIA/ IZENA	ELKARREN HIZKUNTZA-OHITURAK	Publikoa	LH 2-3. zikloak
Denbora	30 min.	Zenbakia	5
Helburua (zertarako egiten dugun)	<ul style="list-style-type: none"> Norberaren eta ikaskideen hizkuntza ohiturak hobeto ezagutzea eta horren inguruan hausnartzea. 		
Prozedura (urratsez urrats eman beharreko pausoak)	<ul style="list-style-type: none"> Bakoitzari galdera edo esaldi zerrenda bat emango diegu, denei berdina. Gelan bertan, galderarentzat erantzuna duen edo esaldia betetzen duen pertsona bat bilatu beharko dute. Txanda bakoitzean galdera bakarra egin diezaiokete elkarri. Talde handian erantzunak bilatzeko momentuan izandako gora-beherak komentatuko ditugu: galderarik zailena zein izan den (erantzuteko zein erantzuna aurkitzeko), errazena, hori zergatik gertatzen ote den... 		
Materiala	Galdera edo esaldi zerrenda		
Erantzunak? Pistak?	<p>Galdera zerrenda honakoa izan daiteke:</p> <ol style="list-style-type: none"> Aurkitu aitona-amonekin euskaraz hitz egiten duen norbait. Zein da euskaraz ikusi zenuen azken filmaren izena? Bere etxean gaztelania/frantsesa ez den beste hizkuntza bat hitz egiten duen norbait. Hiru hizkuntza edo gehiago dakizkien norbait aurkitu. Euskarazko piroporen bat dakien norbait aurkitu. Zein da piropoa? Zein da zure euskarazko musika talderik gustukoena? Noizbait saritu edo zigortu zaituzte hizkuntzaren bat hitz egiteagatik? Zein hizkuntza jakitea gustatuko litzaizuke? Aurkitu euskara eta gaztelania/frantsesa ez diren hizkuntzaren bat hitz egiten den herrialde batera bidaiatu duen norbait. Beste herrialde bateko lagun bat duen norbait aurkitu. Zein telebista kate ikusten duzu normalean? Zein hizkuntzatan egiten duzu amets? 		
Sakontzeko	Urtxintxa Aisialdi Eskolako HezHiz egitasmoa.		

GAIA/ IZENA	HIZKUNTZA-OHITURAK NIRE INGURUNEAN		Publikoa	LH 2-3. zikloak
Denbora	60 min. 30 min.		Zenbakia	6
Helburua (zertarako egiten dugun)	<ul style="list-style-type: none"> Norberaren hizkuntza errealitatea hobeto ezagutzea. Ingurunea liburuxka baten bidez islatzea eta aztertzea. 			
Prozedura (urratsez urrats eman beharreko pausoak)	<ul style="list-style-type: none"> Ikasle bakoitzak bere liburuxka propioa sortuko du. 8 pertsona desberdinen perfila osatzeko moduko liburuxka izango da. Orri bakoitzean, bere inguruko pertsona bat marraztu behar du. Ondoren, pertsona hori identifikatzen duen hizkuntzaren arabera kolore batez edo bestez margotuko du. Posible da bi kolore edo gehiago erabiltzea. Lehenik eta behin, zein kolore erabiliko ditugun adostuko dugu taldean: hau da, euskararentzako zein, gaztelania/frantsesarentzako zein, eta beste bat bada, zein. Honela, taldekide guztiek kolore berdinak erabiliko dituzte. Euskarari dagokionez, aho batez edo belarri batez seinalatuko dugu heldu euskaldunen Euskaraldiko perfila: Ahobizi ala Belarriprest al dira? Azken orrian norberak bere burua irudikatuko du. Haur bakoitzak pertsona horri zergatik egiten duen hizkuntza batean edo bestean galdetu beharko dio eta pertsona horren erantzuna orriaren azpialdean jarriko dute. Ondorengo saioan, pertsonen erantzunak komentatuko ditugu taldean. 			
Materiala	Liburuxka ekoizteko materiala			
Erantzunak? Pistak?	<ul style="list-style-type: none"> Ikasleen inguruko pertsonak honela banatzea gomendatzen dugu: familiako 3 pertsona, ikastetxe bertako bi lagun, ikastetxetik kanpo duten lagun bat, familiakoa ez den eta harremana duen heldu bat (bizilaguna, eskolaz kanpoko hezitzailea, familiako laguna...). Heldu euskaldunen kasuan, galdera zehatzagoa egin daiteke Euskaraldiari lotuta: zergatik aukeratu dute Ahobizi ala Belarriprest izatea? Liburuxkak erabil daitezke abenduaren 3an ikastetxean erakusketatxoak egiteko. 			
Sakontzeko	Urtxintxa Aisialdi Eskolako HezHiz egitasmoa.			

GAIA/ IZENA	ABENDUAK 3, EUSKARAREN EGUNA		Publikoa	LH 2-3. zikloak
Denbora	Egun osoa.	Zenbakia	7	
Helburua (zertarako egiten dugun)	<ul style="list-style-type: none"> • Euskararen Nazioarteko Eguna osoki euskaraz ospatzea ikastetxean. • Giroitze eta prestaketa lanak elkarlanean egitea. 			
Prozedura (urratsez urrats eman beharreko pausoak)	<ul style="list-style-type: none"> • Euskaraldiaren amaieran egiteko bada ere, komeni da Ahobizi ariketa hasiera-hasieran botatzea: elkarrekin progresiboki prestatu dugun ekimenaren bukaera ospatzera goaz euskara hutsean! • Ikasleak lan-batzordeetan banatu: <ul style="list-style-type: none"> • <u>Apainketa-taldea</u> (horma-irudiak, txapak...) • <u>Soinu-taldea</u> (musika, irrati-saioa, animo mezuak...) • <u>Animazio-taldea</u> (joko-jolasak jolasgaraian egiteko...) • <u>Kazetari-taldea</u> (egunean zehar lekukotasunak bildu, argazkiak egin... ondoren artikulua ederra argitaratzeko) • Hitzordu erregularrak finkatuko dira abenduaren 3a prestatzeko eta egun hori euskaraz igarotzeko, guztiok Ahobizi izan gaitezen! 			
Materiala	Lan-batzorde bakoitzak berea sortuko eta osatuko du, denen artean osagarri izateko.			
Erantzunak? Pistak?	<p>Abenduaren 3a zer den ere gogoraraziko da.</p> <p>Noski, ikasleei eskatuko zaie lan-batzordean ere euskararen erabilera zaintzea, ez dela bakarrik helduen esku izango.</p> <p>Gomendagarria da LHko ikasleak DBHkoekin ere nahastea, zaharrenak erreferente izanez, eta harreman-sare berri horien eragina baliatzea euskararen erabilera indartzeko ikastetxean.</p> <p>Esan gabe doa lan-batzorde bakoitza helduen ardurapean egongo dela! Baina ikasleen autonomia garrantzitsua izango da.</p>			



ERANSKINAK

IRRIA ALDIZKARIA, 4-5. ORRIALDEAK (1. ERANSKINA)

IRRIA ALDIZKARIA, 26-27. ORRIALDEAK (2. ERANSKINA)

ZURIBELTZEAN (3. ERANSKINA)

IRRIA ALDIZKARIAN DAUDEN LETRAK: 14-15. ORRIALDEAK (4. ERANSKINA)


IRRIA ALDIZKARIA, 16-19. ORRIALDEAK (5. ERANSKINA)

LETRAK (6. ERANSKINA)

AHOBIZI/BELARRIPREST INFOGRAFIAK (7. ERANSKINA)



MIHIA SALTO-SALTOKA




Ia, ia, ia, badator Euskaraldia!

Erdi gugana, lagun! Begira, begira, zer dakargun.!



Ni Belarriprest nauze; batzuetan erdaraz erantzun arren, euskaraz egin behar didazue!

Ni, berriz, Ahobizi; ulertzen dituen den-denei, nik euskaraz lehenbizi!



Arnasa hartu, arnasa bota; ezpainak dantzan, mihia salto-saltoka...



Ia, ia, ia, hasi da Euskaraldia!

Gatza eta ezitia

Ahobizik dauka dauka mihiaen puntan gatza. Horregatik hasten zaio euskararekin dantzan.

Belarriprestek daukanez ezitia belarrian, biak batzen direnean, ase-festa da herrian.

Hamaika egun

Hamaika egun ez dira hamar gehi bat, eta badira. Hamaika egun badira hamabi ken bat, eta ez dira.

Hamaika egun euskaraz ez dira soilik matematika.



Lehen hitza

Euskaraz entzun nuen lehen hitza.

Euskaraz emango dut berbaren inhitza busti dadin bizitzaz gure soroko haritza.


Eta hostoetan hazi geroaren bitsa.

Haurra naiz eta hemen nago


Haurra naiz eta hemen nago.

Gogoko ditut puxtarri eta izozkiak. Gorroto ekaitzak eta garrasiak.

Eskolan naiz... handien ikaslea! Baina kalean nauzu euskara-irakaslea.



AHOBIZI
izango naiz



BELARRIPREST izango naiz



EUSKARA UDALEAN
EUSKARA HERRIAN
EUSKARAZ HARTZEN DUGU
TA EUSKARAZ EMAN
EUSKARA EDAN GENUEN
AMAREN TITIAN
EUSKARA EDAN NAHI DUGU
ITURRI BERRIAN.

SUSTRAIETAN TINKO
ADARRETAN BRINKO.
AHOA BIZI-BIZI
BELARRIAK PREST BETI
TINKO ETA BRINKO EUSKARA.

HERRIA ERAIKI NAHI
AZAL ETA MAMIZ
EUSKARAZ JOLASTUZ TA
EUSKARAZ IKASIZ
SENTITU PENTSATU EKIN
ELKARREKIN IRRIZ
MUNDUA IKUS DEZAGUN
GEURE BEGI NINIZ.



Euskaraldia ekimena zabalduko da gure herrietan zehar, hamaika egun euskarari bultzada emateko proiektua. Gure lagunak oso euskaltzaleak izan direnez beti, euskara maite izan dutelako, euskararen aldeko jai guztietara hurbildu direlako, baina, batez ere, euskaraz beti eta nonahi hitz egin eta onerako erabili dutelako, antolatzaileek laguntza eskatu diete: Euskaraldia zer den azaldu behar diete ingurukoei.

–Lagunei azaldu beharko diegu lehenik –esan du Porrotxek.

–Dendarik denda joango nintzateke ni... Horiek dira egunean zehar jende gehienarekin hitz egiten dutenak eta –esan du Pirritxek.

–Eta guk zer egin behar dugu? –galdetu du Lorek.

–Zuek gurekin etorri –esan du Marimok–. Txapa hau jarriko ez duzuen arren, oso garrantzitsua da zuek parte hartzea eta zuen lagunak kontaktzea zer den proiektua, zuen adineko guztiak euskaldunak zarete eta!



Izaskun harakinarekin hitz egitera eta proiektua azaltzera joan dira gure lagunak. Izaskunek urte asko egin ditu kanpoan eta, euskara ulertzen duen arren, ez da kapaz hitz egiteko. Hala ere, oso jarrera ona dauka. Bezeroek normalean gaztelaniaz egiten diote, ez dakitelako ulertzeko gai dela.

–Belarriprest txapa ipiniko duzu zuk, Izaskun –esan dio Pirritxek–. Hartara, bezero guztiek jakingo dute euskaraz ulertzen duzula eta arazorik gabe egingo dizute...

–Baietz urte batzuk barru euskaraz erantzun! –oihu egin du Porrotxek

Bitartean, Izaskunen alabarekin hitz egin dute Pupuk eta Lorek, euskaraz beti bezala. Alabak esan die gaurtik aurrera euskaraz egingo diola amari beti...

Okindegira joatea erabaki dute gure lagunek. Okina argentinarra da eta imajinatzen dute ez duela euskaraz hitz askorik jakingo... Beti egin izan dute gaztelaniaz berarekin eta Argentinan erabiltzen diren hitz berezi ugari ikasi dituzte azken urteetan. Okinak zer egin behar du Euskaraldian? Pirritx, Porrotx eta Marimotots ahaleginduko dira argentinarrak hitz batzuk behintzat ikas ditzan euskaraz...

–Esto se llama "ogi"... –hasi da Porrotx lehenengo euskal hitza azaldu nahian.

–Jakina! Aspaldi dakit nik hori! –erantzun dio okin argentinarrak euskara garbian.

Hara hor Euskaraldiaren lehenengo sorpresa: euskaldun peto–petoa da argentinarra! Hori irabazi dute gure lagunek eta euskarak gaur. Motxila azkar–azkar zabaldu eta Ahobizi txapa eman diote okinari.





EUSKARALDIA: *11 egun euskaraz*

Kantaren letra

Izenburua: *Hartu kontrola, aukeratu rola*

Egileak:

- Las Tea Party dj's (musika)
- La Basu (hitzak eta ahotsa)
- Ines Osinaga (ahotsa eta musika)
- Maddalen Arzallus (hitzak)

Letra:

Hartu kontrola, aukeratu rola,
esadazu nola, egin dezagun froga!

Mihiz mihi hemen nago ni goiz, arrats eta gau.
Ahoz aho narabilenak bizi ahala sortzen nau.

Hartu kontrola, aukeratu rola,
esadazu nola egin dezagun froga!

Aktibatu mingaina, hauxe da gure oraina
Euskaraldia prest Euskal Herrian baita.
Hizkuntza gure indarra, ez galdu zure iparra
jarraitu bidean tiraka ta tiraka.

Kalean ta etxean, herriko dendetan
jende guztia dau alaitasunez berbetan
herriko jaixetan, oholtza gainean
euskaraz bizi nahi dugu 11 egunetan!

Euskaraldia bertan da!

Ahobizi naiz ni, belarriprest adi



2018ko iraila

zabalduz mezu beti herriz herri,
buelta bat eman ez betiko ohiturei
puntu izanez milaka milaka aldiz.
Behin eta berriz ez dau mugarik
aske izan baimen barik
asko, gutxi nahiz ezer ez jakin
disfrutau, gozatu jendearekin,
neska edo mutil, adiskideekin
irribarre, berba zatoz gurekin
bota belarrira mingainan puntatik.

Itxi ditzagun begiak eta
bi belarriak zabaldu,
nire ahotsak bihotz barruan
dudana esaten al du?

Euskaraldia bertan da!

Mihiz mihi hemen nago ni goiz, arrats eta gau.
Ahoz aho narabilenak bizi ahala sortzen nau (bis).

Mihiz mihi hemen nago ni, Euskaraldia bertan da!
Ahoz aho narabilenak, Euskaraldia bertan da!

Hartu kontrola, aukeratu nola, esadazu nola.

[Kanta deskargatzeko, hemen.](#)



11 EGUN EUSKARAZ
2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

EUSKARALDIA



AHOBIZI edo BELARRIPREST?

Euskaraldian parte hartu nahi dut.
Baina zein rol aukeratuko dut?
Belarriprest? Ahobizi?

1 Norbaitek euskaraz egiten dizunean, ulertzen al diozu?

BAI

EZ: Euskaraldia ez da zuk parte hartzeko egokia. Ulermena landu dezakezu eta hurrengoan parte hartu. Hala ere, aurten giroa sortzen eta errazten lagundu dezakezu.

2 Prest al zaude jendeak zuri euskaraz egiteko?
Ondo hartuko al zenuke dakiten guztiak zuri euskaraz egitea?

BAI

EZ: Euskaraldia ez da zuk parte hartzeko egokia

3 Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean ulertzen duten guztiekin euskaraz soilik egiteko prest al zaude? Ezagunekin zein ezezagunekin, edonon eta edonoiz, batzuetan solaskideak erdaraz erantzun arren?

BAI



EZ



